OSTIRALA
txintxarri

732. zk.
2008-10-31
LASARTE-ORIA

www.txintxarri.info

# Gipuzkoako Batzar Nagusien autobusa bihar arte ikusgai

## Batzarren funtzionamendua ezagutzeko anbulategi ondoko plazara gerturatu dira herritarrak



Herritarrengana hurbiltzeko nahian, Gipuzkoako Batzar Nagusiek gaiaren inguruko autobus tematikoa jarri dute martxan.

Bertan, herritarrek, Batzar Nagusiak nola funtzionatzen duen eta zertarako den ikusi ahal izango dute. Bideo eta joko bidez erakusten da Batzarren funtzionamendua eduki pedagogiko, ludiko eta multimediadunekin, adin desberdinetarako egokituak. Ondo hornitutako autobusa da, pantaila handi batekin bideoak ikusteko eta hamalau ordeganailu, bisita egiten dutenek parte hartu dezaten.

### Aurkezpena

Autobus tematikoaren aurkezpena egiteko asteartean, Batzar Nagusietako lehendakaria den Rafaela Romero eta bere kideak etorri ziren Lasarte-Oriara. Autobusaren zeregina eta funtzionamendua erakutsi zieten herriko zinegotziei. Lehenengo udaletxean bildu ziren denak ezagutu eta ongi etorria egiteko eta bertan oparien elkar trukaketa egin zuten Lasarte-Oriako Udala eta Gipuzkoako Batzar Nagusien artean. Batzarretako bilera egin ondoren 12:00ak aldera joan ziren autobusa ezagutzera. Dena material birziklatuz egina dagoela esan zuen Romerok eta Batzar Nagusien garrantzia azaldu zuen ondoren autobuseko funtzionamendua ikusten hasi baino lehen "Gipuzkoako Batzar Nagusiak herriaren erakunde ordezkagarriena da Gipuzkoan eta bertan aurkitzen dugu herriaren nahiaren adierazpena". Lehendakariaren hitzaurrea bukatutakoan bideo dibulgatiboa ikusi zuten zinegotziek eta goiza ondo bukatzeko azken tartean galderaz eginiko jokoan aritu ziren. •



Autobusa ezagutzera eraman zituen Rafaela Romerok herriko zinegotziak.



Oinatz taldekoek txangoa prestatu dute Lea-Artibai aldera joateko azaroan /3

KIROLA ▮ 6

**Igandean ospatu zen XIII. Lasarte-Oria Bai! Kroseko irabazleekin aritu gara solasean**



Mikel Zinkunegi lasarteoriarra Palestinan izan da udan brigadista moduan /4-5

Eguerdietan ere hartzen dugu jendea, ordua aurrez eskatuz gero.

Proba ezazu gure laser zerbitzua

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

MAiTE
ESTETIKAKO ARETOA

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • LASARTE-ORIA

ETXARRI DIGITAL
943361484 Nagusia 17 LASARTE-ORIA

Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN
EZKONTZETAKO erreportajeak
ESTUDIOKO erreportajeak
makina DIGITALAK
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK
GEURE MARKOAK JARTZEN DITUGU



KIOSKO DIGITALA

## Zorion-agurrak



**Maite eta Manuel**
Zorionak zuen ezkontz urteurrenean. Elkarrekin beste horrenbest jarraitu dezazuela.



**Enara eta Julen**
Zorionak bihotzak! Jarraitu hazitzen aitatxo eta amatxoren partetik!.



**Loren**
Zorionak zure urtebetetzean. Iris, Jose Mari eta etxekoen partetik. Oso ondo pasa zure eguna.



**Ibon, Aitor eta Nadia**
Zorionak zuen 3. Urtebetetzean. Familia osoaren partetik.



**Saioa**
Zortzi muxu handi, aitona-amonaren, gurasoen eta Xabierren partetik.



**Luis Mari**
Zorionak aitatxo! Zure printzesaren partetik.



**Nahia**
Zorionak, 4 muxu potolo famili guztiaren partetik.



**Rebeka**
Zorionak Rebe! Muxu haundi bat Patxotarren partetik. Aupa gure "lorza"!!



**Garazi**
Dagoeneko 10 urte? Zorionak eta besarkada beroa den denon partetik.



**Eneritz**
Eta gure xagutxoak 6 urte, zorionak, mila zorion den denon partetik eta...muxu bat.

## Azoka txikia

### Eskaintza inmobiliarioak

• Pisu bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean. Abala eskatzen da. Tel.: 686 674 552.

• Salgai lokal bat Andatza plazan, 2. zk. Etxebizitza egiteko modukoa. 60 metro karratu ditu eta argitsua da, argi naturala du. Tel.: 943 363722, Cecilia Arbizu.

• Urbarten garaje plaza bat alokatzen dut. Plaza handia da, furgoneta bat sartzeko modukoa.
Tel.: 943 376 115.

### Salerosketak

• Garaje itxia erosiko nuke edozein lekutan, gehienez 4.000.000pta ordainduko nituzke.
Tel.: 629 417815.

• 18 eta 22 metro karratuetako 2 trasteleku saltzen ditut Lasarte-Orian ( Sasoeta auzoan). Bakoitzaren prezioa 1.000.000pta.
Tel.: 629 417815.

• PSPa salgai. Urte bete du eta oso gutxi erabilita, 125 euro.
Tel.: 653 712373

### Lan-eskaintzak

• Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko, goizez.
Tel.: 666 409196.

### Lan-eskariak

• Neska bat eskaintzen da lan egiteko. Etxeko lanak egiteko, zaharrak edo haurrak zaintzeko, orduka, interna edo externa moduan.
Tel.: 689 200 659.

**Oharretarako:**
943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4 • www.txintxarri.info

### Jaiotzak

Alain Lerena Sevillano, urriaren 24an.

Izan Martin Berezo, urriaren 21ean.

Leire Del Valle Lizaso, urriaren 19an.

### Heriotzak

Guadalupe Yoldi Iribarren, urriaren 28an 87 urte zituela.

Eulalia Sabariego Borrego, urriaren 20an 83 urte zituela.

Vicente Gibellos Ramos urriaren 20an 71 urte zituela.

Francisco Fernandez Garcia-Bordallo, urriaren 7an 88 urte zituela.

## Guardiak

**Ostirala, 31**
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

**Larunbata, 1**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

**Igandea, 2**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

**Astelehena, 3**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

**Asteartea, 4**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

**Asteazkena, 5**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

**Osteguna, 6**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

## Telefonoak

### Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa . . .943 007960
DYA . . . . . . . . . . . . .943 370000
Gurutze Gorria . . .943 363953
Udaltzainak . . . . . . .943 362442
Ertzaintza . . . . . . . .943 288888
SOS Deiak . . . . . . .112

### Udala

Erregistroa . . . . . . .943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia . . . . . . . .943376182
Kulturetxea . . . . . . .943376181
Bakezko epaitegia . .943371629
Zerbitzu Sozialak . .943376179
Zentro Zibikoa . . . .943363958
KIUB . . . . . . . . . . . .943361605
Udal euskaltegia . . .943361621
Obrak eta zerbitzuak . . . . . . . .943 376180

## Gazte Informazioarako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

**Fantasiazko eta beldurrezko zinemaren astea**
Gaur urriaren 31an hasita eta azaroaren 8a bitartean Donostian *Fantasiazko eta beldurrezko XIX.astea* ospatuko da. Bertan film ugari ikusi ahal izango da: film laburrak, film luzeak, Japoniako animazioko zinea, haurrentzako zinema, V.Komiki jardunaldia, antzerkia... Informazio gehiago zinema astearen webgunean, www.donostiakultura.com/terror/2008.

**Tolosako Nazioarteko abesbatzen lehiaketa**
Urriaren 25ean hasita eta azaroaren 2 arte Tolosako XL. Nazioarteko abesbatzen lehiaketa ospatuko da. Mundu guztiko txokoetatik etorriko dira abesbatzak: Errusia, Norvegia, Txekia... gehienak europearrak izango diren arren . Aukera egongo da sarrerak bono moduan hartzeko. Informazio gehiago www.cittolosa.com helbide elektronikoan.

**Sorospen Ikastaroa**
2008ko azaroaren 10etik 28ra arte, DYA Gipuzkoak antolatuta Sorospen ikastaroa emango da. Ikastaroa astelehenetik ostiralera izango da, arratsaldeko 19:30etik 21:30era, Donostiako Ategorrieta Galtzadan aurkitzen den San Ignacio Institutuan, Plazak mugatuak dira. Ikastaroak 2 kreditu emango ditu EHUrako. Izena emateko epea azaroaren 5 arte luzatzen da. Informazio gehiago 943 464622 telefono zenbakian edo http://www.dyagipuzkoa.com web orrian.

**Sentsibilizazio Jardunaldiak**
Haurralde Fundazioak *Mundu Solidario baten aldeko ekintzak* izenburupean sentsibilizazio jardunaldiak antolatu ditu. Urriak 28 eta azaroak 3 eta 4an Donostiako EHU-ko Psikologia Fakultatean izango dira jardunaldiak. Jardunaldiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero GKEren web orrian, www.haurralde.org, , aurkituko duzue.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak

Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

**Argitaratzailea:** Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • **Legezko gordailua:** SS513/93 • **ISSN:** 1134-0053 • **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A. **Aleak zenbakiko:** 7.300 • **Erredakzioa:** txintxarri@ttakun.com • **Publizitatea:** publizitatea@ttakun.com • **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.
**Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.**

# Oinatz taldeak Lea Artibai aldera egingo du hurrengo txangoa

TXINTXARRI

**Ttakun Kultur Elkartearen Oinatz taldea berriro ere martxan dago. Oraingoan herrialdez aldatu eta Gipuzkoatik Bizkaiara egingo dute, Lea Artibai eskualdera hain zuzen ere, Markina eta Ziortza-Bolibar bisitatzera.**

Euskal Herria ezagutzeko aukera paregabea da Oinatz taldea. Izan ere, irteera kultural gidatuak egiten baititu. Hauetan herrietako pertsonaia ezagunen berri izateaz gain, bertako jendearekin harremana izaten da. Hau guztia, euskara hutsean egiten da eta euskaldun berrientzat hizkuntza lantzeko aukera ezin hobea da.

Izena eman nahi dutenek, Ttakuneko bulegotik pasa behar dute azaroaren 13a baino lehen, izan ere autobuseko txartela erosi behar da txangorako.

### Lea Artibaira bidaia

Aitzinean esan bezala, azaroaren 16an txangoa du Oinatz taldeak. Goizeko 9:00etan taxi geltokitik atera eta Markinara 10:30ean iritsiko direla jakin arazi digute Oinatzeko kideek.

"Bertan ordu erdiko mendi irteera egingo dugu Sta. Eufemiako baseliza ikustera", esan digute. Baina bertara iritsi baino lehen bidean dauden 222 harrizko maila igo beharko ditu taldeak.

Ostean Ziortzako kolegiataren txanda izango da. Ziortza, gaur egun, Euskadiko Monumentu ofizialtzat aitortuta dago. Oiz mendiaren iparraldeko hegalean kokatua dagoen eliza X. mendekoa dela esan ohi da eta Done Jakue bideko toki garrantzitsua gainera. Eliza berak, klaustroa, sarrerako bi ate eta zistertar komunitatearen eraikinak osatzen dute Ziortzako multzo erlijiosoa.

Eguraldi ona baldin bada Markinako parkean bazkalduko da eta kaxkarra baldin bada frontoian. Bertako euskara entzuteko aukera ere izango da, markinatar baten bisita izango baitute.

### Bolibarreko Simon

Arratsaldean Aretxinagako Mikel Deunaren baseliza ikustera joango da taldea. Hau Markina-Xemeingo eraikinik bitxiena da. XVII. mendean eraiki zen baseliza da eta jatorri ezezaguneko hiru harritzar handik osatzen dute egituraren estalpea. Eta gainera, harri horiek ekilibrioan daude.

Eta irteerari bukaera emateko, Ziortza-Bolibarrera egingo du Oinatzek. Bertan Bolibarreko Simon, *Amerikako askatzailea*ren arbasoen herria ezagutuko dute, baita honen biografia ere.



Irudian Aretxinagako Mikel Deunaren baseliza. Egituraren estalpea osatzen duten hiru harritzarrak ekilibrioan daude.

Aurreko txangoak harrera ona izan zuen eta hogei bat pertsona ibili ziren Araotzeko auzoan, Arrikrutz kobazuloan eta Oñatin. Eguraldi paregabea izan zuten eta txoko ikusgarriak ezagutu zituzten.

Oinatz taldeak lasarteoriarrak irteeretan parte hartzera animatu nahi ditu. Ekimen honi esker, Euskal Herriko txoko ezkutu eta interesgarrietatik barrena ibili ahalko baita taldearekin batera giro euskaldun batean.

### Hurrengo irteerak

Eta azkenik, Oinatzeko kideek jakin arazi digutenez, dagoeneko erabakiak dituzte hurrengo hilabeteetako irteerak.

Otsailaren 8an Aranora egingo du taldeak estazio megalitikoa ezagutzera. Babarrun jana egongo da ostean.

Martxoaren 29an Bertizeko parkea eta Etxalar izango dira bisita guneak. Usategietako teknika eta Bertizeko flora ezagutzera doa taldea.

Maiatzaren 30 eta 31eko asteburuan Arabara egingo du Oinatzek Valderejoko parkea bisitatzera eta gatzagak, Nerbioi ibaiaren iturburua, etab. ikustera.•

## Asteburu musikala izan genuen Roberto Yaben eta Bad Sound Systemen eskutik

**Lehengo asteko asteburua musikala izan zen Lasarte-Orian. Ostiralean, Roberto Yaben gitarrajole hernaniarra Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian izan genuen eta larunbatean, berriz, Bad Sound System taldearen txanda izan zen Jalgi kafe-antzokian.**

Xpressionk! eta udaleko Gazteria eta Festetako Sailak sinatutako hitzarmena dela eta, Roberto Yaben gitarrajoleak ekimenari hasiera eman dion kontzertua eskaini zuen ostiralean Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian.

Herritar ugari bildu zen bakarlari hernaniarraren saioa entzutera. Musika estilo desberdinak uztartu zituen eta jendeari atsegin egin zitzaion emanaldia gitarrajoleari eskainitako txaloak kontuan izanik. Beraz, harrera ona izan duela esan daiteke





Roberto Yabenek ostiralean Kulturetxeko kafetegian eskainitako kontzertuak harrera ona izan zuen, baita Bad Sound Systemek Jalgin larunbata gauean eskainitakoak ere.

Honetaz gain eta ekimenari lotuta, kafetegiko barran Lasarte-Ursurbi institutuko gazteek kurtso amaierako bidaiarako dirua lortzeko edariak eta pintxoak salgai izan zituzten.

### Bad Sound System

Larunbata gauean Bad Sound System taldeak giro ederra ezarri zuen Jalgi Kafe antzokian.

DJek reggae musikarekin hasi ziren entzuleak berotzeko eta ostean, hiru abeslari igo eta rapa abesteari ekin zioten. Egungo egoera, maitasuna, etab. uztartu zituzten abestietan.•

# “Okupazioaren aurrean erresistentzia dute bide bakarra”

Itziar CARRASCO

Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1947an 181 erresoluzioren bitartez Palestina bi estatuetan banatzea erabaki zuen, bata arabiarra, bestea hebrearra, arabiarren gaitzespenarekin. 1948ko maiatzean Israeleko Estatua eratzen denean, lehen guda hasten da arabiar eta israeldarren artean. Israeldarrek euren boterea ezartzeak 600.000 palestinarren exodoa eragin zuen. Ordudanik, israeldarren okupazioa handiagoa da eta palestinarren egoera gero eta latzagoa. Palestinarren errealitatearen berri Mikel Zinkunegik eman digu. Komite Internazionalistetako kidea da eta udan brigadista bezala egon zen bertan. "Palestinarrei gure elkartasuna adieraztea joan gara eta beraien egoera ezagututa munduari horren berri ematea da orain gure helburua".

**Nola ikusi duzu palestinarren egoera?**

Oso momentu larrian bizi dira. 1948an estatu israeldarra eratu zenetik, jada, hirurogei urte, lurralde handi bat edukitzetik %11 izatera pasa dira. Eta %11 hori ere israeldarrek dute okupatua, ateratzeko, sartzeko, israeldarren baimena behar da. Beraien lurretan ere, ez dute askatasunik. Okupazio horren aurka borroka egiten duten palestinarrei gure elkartasuna adieraztea eta bizi duten egoera gertutik ezagutzera joan gara. Bertako talde politiko eta sozialekin hitz egin dugu beraien iritzia ezagutzeko.

**Bertatik ikusita zein izan da jaso duzun inpresioa?**

Oso bizitza gogorra, latza dute. Presiopean bizi dira: edozein gauza egiteko israeldarren baimena behar dute: familia bisitatzeko, lanera joateko, etxeak eraikitzeko... Israeldarrek ahal dituzten oztopo gehienak jartzen dituzte. Neurri politikoak, ekonomikoak, legalak, militarrak... hartzen ari dira palestinarrek euren lurraldetik alde egin dezaten. Palestinarrek 60 urte hauetan pixkanaka lurraldea galtzen joan dira. Horregatik diot, palestinarrak presiopean bizi direla eta horrela bizitzea oso zaila da.

**Zein ikuspuntu dute bertako talde politiko eta sozialetako ordezkariek?**

Palestinako talde politiko garrantzitsu guztiekin egon gara, Hamas, Frente Popularrarekin... Lurralde propioa duen palestinar Estatua aldarrikatzen dute. Talde hauen aldarrikapen historikoa da. Arazoa da, azkeneko 60 urteetan israeldarrek gero eta lurralde gehiago okupatu dutela. Soluzio bakarra, hau iritzi pertsonala da, Estatu demokratiko laiko bat sortzea da eta denek eskubide berdinak izatea. Honek esan nahi du Israeleko estatua desegin egin behar dela eta berri bat eratu, Jordan ibaitik mediterraneoraino eta bertan denak batera bizi daitezen: palestinarrak, israeldarrak, musulmanak, katolikoak edo judutarrak, gizonak eta emakumeak, denek eskubide berdinekin. Baina, momentu honetan edozein soluzio zaila da.

**Zein da arazo honen jatorria?**

1947an Nazio Batuek judutarrei aukera bat ematea erabaki zuen eta 1948an Israel estatua sortu zen. 60 urte pasa dira eta garai honi palestinarrek Al-nakba deitzen diote, ezbeharra gertatu zenetik. Gero eta okerrago daude, gero eta lur gutxiago dute.

Arazoa politikoa da. Mendeetan lurralde horretan erlijio desberdinetako hiritarrak elkarrekin bizi izan dira. Arazoa da, Israelek judutarrentzat bakarrik izango den estatu bat nahi dutela, beraientzat bakarrik eta palestinarrak kanporatu. Lur guztia beraientzat nahi dute, jainko batek hala agindu zielako. Palestinar askok euren etxeak utzi behar izan dituzte israeldarren okupazioarengatik eta euren lurraldean bertan errefuxiatuak dira, milaka dira, beste batzuk Sirian, besteak Libanon, besteak, Jordanian daude. Nazio Batuen erakundeen eremuetan bizi dira. Zisjordanian egon ginen eta han 26.000 pertsona kilometro karratu batean bizi dira. Kaleak estuak dira, denak pilatuta bizi dira, haurrek ez dute parkerik edo lekurik jolasteko...



Israeldarrek 700 kilometroetako harresia eraikitzen jarraitzen dute palestinarren eguneroko bizitza oztopatuz. Argazkia /MIKEL ZINKUNEGI

**Harresia oraindik eraikitzen jarraitzen al dute?**

700 kilometrotako harresia egiten ari dira, eta harresiaren eraikuntzarekin jarraitzeko asmoa dute. Benetan, bertara joan eta ikusi arte ezin da sinestu. Izugarria da. Altueran zortzi metro dituen harresiak herriak, auzoak, familiak... banatzen ditu. Harresietan ateak daude. Ate hauek militar israeldarrek kontrolatzen dituzte eta beraiek erabakitzen dute, noiz eta zeinek gurutzatzen duen atea. Beraiek diote, harresia eta ateetako kontrolak atentatu terroristak saihesteko direla. Baina, benetako helburua beste bat da, palestinarren bizitzak oztopatu, normaltasuna puskatu eta euren arteko banaketa fisikoa eragin nahi dute.

> “700 kilometrotako harresia eraikitzen ari dira eta jarraitzeko asmoa dute. Izugarria da, altueran zortzi metro ditu eta herriak, auzoak, familiak... banatzen ditu.

**Kontrol guneak ere edonon omen daude.**

Check point-ak beste kontrol neurri bat da. Edozein lekutan daude. Imaginatu, Lasartetik Tolosara joateko egin beharko genukeena: Lasartetik Andoainera autoz joan, han kotxea utzi, kontrol gunea oinez pasa, beti ere militarren baimenarekin, gero autobusa edo beste kotxe batean Villabonara joan, han beste kontrol gune bat pasa, hor ere pasaportea, paperak erakutsi behar dira, harresiaren beste aldera pasa eta beste garraio bat hartu Tolosara iristeko. Hiru ordu inguru behar dituzte 30 bat kilometro egiteko. Kanpotik goazenak pasa gaitezke, baina palestinar askok kontrol gune hauetan geratzen dira beste aldera pasa ezinik. Egunerokotasuna guztiz puskatuta dute. Hau ikaragarria da.

**Nolakoa da militarren jarrera?**

Leku guztietan daude, nagusikeriaz, larderiaz aritzen dira. Guztiz armatuak daude, kaleko arroparekin daudenak ere armak eramaten dituzte, edozein momentuetan paperak eskatzen dizkizute, goitik behera miatu...

**Palestinarrak Jerusalemen sartu al daitezke?**

Palestinarrek debekatuta dute Jerusalenera pasatzea. Belengo palestinar batek esaten zigun, bere semeak ez duela Jerusalerem ezagutzen, eta bertan dago, 15km besterik ez daude hiri batetik bestera. Jerusalem hiri zoragarria, polita da, baina militarrez josita. Kultura eta erlijioaren ikuspegitik oso aberatsa eta munduko hiri garrantzitsuenetarikoa, kristauentzat, musulmanentzat eta judutarrentzat.



Palestinarrek edozein lekuetara joateko militar israeldarren kontrol guneak jasan behar dituzte. Argazkia /MIKEL ZINKUNEGI

**Nola bizi dute okupazioa?**

Garbi dute ez dituztela beraien lurrak eta etxeak utziko. Erresistentzia dute bide bakarra. Beraientzat egunero bizitzea, erresistentzia da, eskolara joatea erresistentzia da, haurrek kalean jolastea erresistentzia da, ez alde egitea erresistentzia da. Ondorioz eguneroko bizitza latza da.

Edozer egiteko beraien baimena behar da. Gainera, israeldarrek herritar hauek gehiago presionatzeko legeak egin dituzte, adibidez: lur zati bat bi hilabeteetan ez bada erabiltzen, zuzenean Israeleko estatuak bereganatzen du. Baina, lur eremu horietara joateko beraien baimena behar da, check point-ak pasa, harresia pasa...

**Nolakoa da Gazako egoera gaur egun?**

Cisjordanian, Belen okupatuan eta Gazan egon gara. Gazak 10 edo 12 kilometro zabaleran eta 30 kilometro luzeran ditu eta bertan miloi eta erdi pertsona bizi dira. Kartzela handi bat da. Ezin dira lurralde horretatik atera eta inor gutxi sartu daiteke. Egoera honetan 16 hilabete daramate: ez dute lantzeko lurrik, komertzio gehienak itxita daude, herritar gehienak langabezian daude, horrela ezinezkoa da garapen ekonomikorik izatea eta gainera, %80a errefuxiatuak dira eta bertan daude. Herri honen aurka egiten ari direna giza eskubide guztien aurka doa. Gazan dagoen Nazio Batuen ordezkariak esaten zigun, beraiek ez direla gai Gazan bizi diren guztiei laguntzeko.

**Baina, Nazio Batuek nola onartu dezakete israeldarrek palestinarrekin egiten ari direna?**

Sinestezina da, baina sionista israeldarrek botere handia dute eta ez dago gobernurik horri aurre egiteko prest. Israeldarren estatua sortu zenean, palestinarren lurraldeetan %5a judutarra zen. II mundu gerraren ondoren sionistek presioa handia egin zuten eta ONUk lurraldearen %55a eman zien. 1948tik egunetik egunera, israeldarrek gero eta lur gehiago okupatu dituzte. Ondorioz, %11 besterik ez zaie gelditzen palestinarrei, Cisjordania eta Gaza. Lurralde hauei autoridad palestina deitzen zai, baina palestinarrek botere gutxi dute bertan, izan ere, ateratzeko edo sartzeko, israeldarren baimena behar dute.

**Zenbat preso palestinar daude?**

Egun, 11.000 preso palestinar daude israeldarren kartzeletan. Baina, bihar 11.050, etzi 10.950 eta bi egun barru 12.000 izan daitezke. 1967tik 700.000 palestinar pasa dira israeldarren kartzeletatik. Honek esan nahi du palestinarren %25a israeldarren kartzeletan izan direla, hau da, ez dago ia familia palestinarrik, ezta arlo sozialik egoera hau ezagutzen ez duenik. Israelek bitarteko guztiak erabiltzen ditu lurraldea husteko eta gizarte egitura puskatzeko. Gainera, kartzelak negozioa dira israeldarrentzat, presoek bertan dauden bitartean beraien mantenua ordaindu behar dutelako. Israelek kartzelak erabiltzen ditu palestinarrek itxaropena galdu dezaten. Atxiloketa masiboa Israelek Palestinako herriaren aurka erabiltzen duen beste neurri errepresibo bat da, lurren konfiskazioa edo harresia bezalakoa. Politika honen helburua herriak bere lurra utzi dezan eta herriaren erbesteratzea eragitea da. Horretan datza politika israeldarra.



Palestinako kaleetan ohikoa den irudia da. Argazkia /MIKEL ZINKUNEGI

**Palestinar herriari nola lagundu diezaiokegu?**

Palestinarren egoerari buruz informatu, jakin zer jasaten ari diren eta informazio hori zabaldu. Hayako Auzitegi internazionalak Palestinan eraikitzen hari diren harresia legez kanpokoa zela esan zuen, hala eta guztiz ere eraikitzen jarraitzen dute. Nazio Batuen arabera, debekatuta dago koloniak egitea eta Israelek egunero kolonia txikiak egiten ditu. Israelek ez dute inongo legerik betetzen eta gure esku dago, gure politikariei presio egitea, zerbait egin dezaten guzti honekin amaitzeko. Laguntzeko beste modu bat boikota egitea da: kirol edo musika talde bat etortzen bada jakin arazi behar diegu israeldarrak ez direla ongi etorriak inon;. bestetik mundu mailan israeldar produktuei boikota egitea planteatuta dago, 729 zenbakiarekin hasten diren barra kodeak israeldarrek egindako produktuak dira. Dudarik gabe produktu hauek ez erosi.•

## Bidaietako diaporamak asteazkenero Jalgin

### Hurrengo astean Mikel Zinkunegik palestinarrek bizi duten errealitatea argazki bidez erakutsiko du

Bidaietako diaporamak azaroaren 5etik aurrera eta asteazkenero ikusgai izango dituzue Jalgi kafeantzokian, iluntzeko 21:00etatik aurrera. Azken urteetan bezala herritarren bidaiak izango ditugu ikusgai eta entzungai. Aurtengo egitasmoak bost saio jasotzen ditu: Euskal Herriko irudiak zein hurrutiago dauden lurraldeetako argazkiak ikusi ahal izango dituzue.

Lehena, azaroaren 5ean, Mikel Zinkunegik eskainiko duena izango da. Palestinari buruz guri kontatu diguna eta gauza gehiago azalduko ditu ateratako argazkien bidez.

**Hurrengo emanaldiak**

Azaroaren 12an Oinatz Taldekoen txanda izango da. Lasarte-Oriatik hogei bat lagun apirilean Orkatzamendira, Oñatira eginiko irteera kontatuko digute. Erakutsiko dizkiguten argazkien artean Araotz bailara, Lope de Agirreren jaio zen lekua eta Arrikutzeko kobazuloa ikusi ahal izango dituzue.

Azaroaren 19an, berriz, Ander Amondarainek, Cabo Verdera eginiko bidaia azalduko digu.

Azaroaren 26an Irati Perez Nepalera eginiko bidaiari buruz jardungo da. eta azken diaporama, abenduaren 3an izango da. Hibai Diezek eta lagunek Txina, Tibet, Kyrgyztan eta Uzbekistanera eginiko bidaia kontatuko digute.

Aurtengoa zortzigarren Bidaietako diaporamen zikloa izango da. Hauen bitartez munduko leku asko ezagutzeko aukera daukagu, lasarteoriar desberdinen ikuspuntutik.

Beraz, bidaiatzeko zaletasuna eta aukera duzuenok, badakizue hemen ere zuentzako tarte bat dagoela, bidai etako bizipenak eta sentsazioak, argazkien bitartez, besteei kontatzeko.

## Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 1**

**10:00etan,** Ostadar-Añorga (Infantil Ohorezko maila) Harane, Usurbilen.
**12:00etan,** Añorga-Ostadar (Infantil txikiak) Rezola, Añorgan.
**17:30ean,** Usurbil F.T. "B"-Ostadar F.T (II. Erregionala) Harane, Usurbilen.
**19:30ean,** Ostadar-Intxaurdi (Emakumezkoen Liga) Harane, Usurbilen.

**Igandea 2**

**10:00etan,** Ostadar-Lazkao (I. Jubenila) Michelinen.
**11:45ean,** Lasarte-Oria Taldea-Amaroz (II. Erregionala) Michelinen.

---

**10:00etan,** Ordizia-Ostadar (Alebinak) Usabal, Tolosan.
**11:45ean,** Urnieta-Lasarte-Oria Taldea (I. Jubenila) Urnietan.
**12:00etan,** Añorga KKE-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila) Rezolan, Añorga.

**SASKIBALOIA**

**Larunbata 1**

**16:00etan,** Ainhoa-Gazteluzar (Gizonezko seniorrak) Kiroldegian

**PILOTA**

**Larunbata 1**

**20:00etan,** Azkoitiako-Intza (Eskuz binaka II. Seniorra) Azkoitia.

## Kiroletako oharrak

**Kirol gunea itxita**
Azaroaren 1ean, larunbata, Udal Kirol gunea (Mitxelin) publikoari itxita egongo da. Egun honetan abonatuek beste Udal Kirol Instalakuntzak erabiltzeko aukera izango dute, baita Andoain (943 300 147) eta Usurbilgoak (943 372 498) ere.



**David Martin /** Lasarte-Oria Bai! kroseko gizonezkoen mailako garailea

# “Hasieratik egurra eman behar nuela banekien”

**Lehenengo kilometroetan lasterketa buruan jarri zen David Martin lasarteoriarra eta bukaera arte mantendu zuen bere postua. Bigarren urtea da Lasarte-Oria Bai! krosa irabazten duena, jarraian gainera. Horregatik, bere iritzia jakin nahi izan dugu lasterketa bukatzerakoan.**



**Nola ikusi duzu Lasarte-Oria Bai! Krosa?**
Ondo ikusi dut. Lasterketa ezaguna dut noski. Krosean parte hartzera zein etorri den ikusi eta banekien hasieratik egurra eman behar nuela.

**Denbora partzialetan errekorra gainditzeko zinela zirudien...**
Errekorra haustea zaila da. Hemen korrikalari onak ibili dira Kamel Ziani, Richard Fernandez, Rafa Maritxalar eta horien mailara iristea ezinezkoa da niretzat.

**Birritan irabazi duzu Lasarte-Oria Bai! Krosa hurrengo urtean hirugarrenaren bila?**
Hori ezin da jakin. Entrenatzen hasi eta hurrengo urtean nola nagoen ikusi beharko da.

**Azaroaren 9an lehiatuko den Behobia-Donostia nola ikusten duzu?**
Ongi. Azkeneko astetan puntu pixka bat hartu det, udaran okerrago nengoen.

Ea iaz bezala ateratzen zaidan. Helburua iazko marka mantentzea da baino nahiko lan izango dut, iaz marka ona egin bainuen. Hori gainditzea zaila izango da. Orduan, lasterketan dena ongi atera zen. Aurten berriro ere karrera ongi ateratzen bada kontent egoteko modukoa izango da. •

# LOKEko judokentzat domina eta sari gehiago

Lehengo ostirala eta larunbata Madrilen pasa zuten LOKE taldeko Joseba Izagirre, Iñaki Elizalde eta Julen Sasiaine juniorrek Espainiako Sambo Borroka Txapelketan parte hartzen.

Iñaki eta Josebak brontzezko domina lortu zuten eta Julenek 5. postuan bukatu zuen pisurik zailenean.

Gorka Aristegi entrenatzaileak jakin arazi digunez, “Josebaren domina oso positiboa izan da eta merezitakoa. Iñakik aukerak zituen txapelduna izateko baina ez zuen bere egunik hoberena eduki eta Julen nahiz eta bat irabazi, gero ezin izan zuen domina lortu”.

Honetaz gain, taldeka Euskadi txapelduna izan zela ere aipatu digu.

### Infantilak

Bestalde, igandean infantil mailako Josu Olmos, Abayuba Gutierrez eta Iñigo Matxainen txanda izan zen Sauvagnoneko txapelketa internazionalean parte hartu baitzuten.

“Josuk bere lehenengo bi borrokak erraz irabazi zituen eta hirugarrena galdu, Iñigok bat irabazi eta bi galdu zituen eta Abayubak, aldiz, oso txapelketa ona egin zuen hiru borroka irabazi eta hiru galduaz. Brontzezko domina arbitroak erabaki arraro bat hartu eta gero galdu zuen”, azaldu digu entrenatzaileak.

### Kirolari promesa

Baina beste berri batzuk ere eman dizkigu Gorka Aristegik. Izan ere, LOKEko judo sailan bost *Kirolari promesa* berri ditugu, Arrate Oiartzuni Amaia Curiel, Leire Zubizarreta, Asier Sagasti eta Iñaki Elizalde batu baitzaizkio.

Hauek guztiak iaz Sambo Borroka modalitatean Espainiako bigarrenak izan ziren eta horregatik merezi izan dute izendapena.

Honetaz gain, asteburuan Kataluña, Frantzia eta Errioxako judokak datoz bisita egitera. 100 bat judoka elkartuko dira Hondarribian eta Donostian entrenatzeko. •

**Amaia Ostolaza/** Lasarte-Oria Bai! kroseko emakumezkoen mailako garailea

# “Jende gehiago zegoen animatzen eta asko eskertzen da hori”

**Iaz Amaia Ostolazak hirugarren postua eskuratu zuen Lasarte-Oria Bai! kros herrikoian eta aurten, bere marka 15 segundutan jaitsiaz, garaile izan da. Krosa bukatu eta berarekin egon gara solasean.**



**Zer moduzko lasterketa izan da Lasarte-Oria Bai! krosa?**
Oso polita izan da. Iaz ere bertan egon nintzen eta orduan baino hobeto egin dut. Gustora egin dut lasterketa. Hala ere, gogorra izan da aldapa batzuetan, baina azkenean ondo joan da dena.

**Lehiakideak nola ikusi dituzu?**
Lasterketara etorri eta ez dakizu nor etorri den. Gero nolako karrera ateratzen zaizun ikusi behar duzu. Baina orokorrean ondo joan da.

**Lasterketa orokorrean nola ikusi duzu?**
Giro gehiago ikusi dut aurtengoan, jende gehiago zegoen animatzen eta asko eskertzen da hori.

**Helburua Behobia-Donostia lasterketa prestatzea da zuretzat ere?**
Ez. Helbururik gabe nago. Lasterketak egin, disfrutatu eta hori da dena niretzat.

## Egunero

**Erakusketa**
MONICA CAÑON URSOLA margolariaren margo minimalistak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.

## Ostirala, 31

KOLONEKO MINBIZIA: DIAGNOSTIKO GOIZTIARRARREN ESTUDIOA LASARTE-ORIAN, Osasunaren XVI. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

## Astelehena, 3

**Ipuin-kontalaria**
IPUIN ZORAGARRIAK entzungai 4 eta 5 urte bitarteko haurrei zuzendua Pello Añorga ipuin-kontalariaren eskutik. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian 18:00etan.
EUSKARAZ

## Asteazkena, 5

**Ipuin-kontalaria**
KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren saioa etxeko txikientzat. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ



## *Ttakuntronik zirkuitua abian*

Martxan da ikasturte honetako Ttakuntronik zirkuitua. Aurten hileroko azken larunbatean izan beharrean, hileko lehenengo larunbatean izango da. Beraz bihar Grassmann (Afrogrooves) DJa izango da Jalgin; Imanol Costas (electroDonosti) Siglo XX tabernan eta DJ Ka (Jaula de grillos Kolektiboa) Obelix tabernan

BIHAR, JALGIN, OBELIXEN ETA SIGLO XXN
23:00ETATIK AURRERA

**Diaporama**
MIKEL ZINKUNEGIK PALESTINARA brigadista moduan eginiko bidaia azalduko du Bidaietako diaporamen zikloaren barruan. Jalgin, 21:00etan, EUSKARAZ

## Ostirala, 7

**Antzerkia**
"HALA MINTZATU ZAN ZAPPATRUSTA" obra Ander Lipus & Karabanaren eskutik. Saio hau Topaguneko Kultur Errota egitasmoaren barruan dago. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.
EUSKARAZ



## Asteartea, 11

**Ipuin-kontalaria**
BEATRIZ EGIZABALEK ipuin zoragarriak kontatuko ditu 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Manuel Lekuona Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ

## Liburutegiko ordutegia

Manuel Lekuona kulturetxea

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea •Geltoki kalea 18 •Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa

**Ostiralero programa!**
FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.
Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

**Argazki kamara digital bat galdu zen kroseko egunean**
Argazki kamara digital bat galdu zen Lasarte-Oria Bai! Kroseko egunean, urriaren 26an Okendo inguruan. BENQ DC E720 markako kamara bat da. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala 605 760 578 zenbakira. Sarituko da.

**Udako Txokotako argazkiak**
Udako txokotan ibili diren haurrei CD batzuk banatu zaizkie udako argazkiekin. Norbaitek oraindik jaso gabe badu CD, horretarako azken eguna azaroaren 7a izango dela jakinarazi nahi dute antolatzaileek. Gogoratu CD Ola kale 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik pasa behar dutela argazkiekin osatutako CDa jasotzera. Ordutegia honakoa da, arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara.

**Dantzaren Lagunak taldea**
Erketzek entsegu irekiak aurkeztu nahi ditu Dantzaren Lagunak taldearen bidez. 15 urtetik gorakoetnzat daude bideratuak eta erromeriko dantzak landuko dituzte. Beraz, plazan gogoarekin begira ez geratzeko, orain da zure aukera. Urriaren 28tik aurrera, astearteko arratsaldeko 20:00etan bilduko dira Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Zumaburuko eraikinean. Animatu!

**Katxalin Elkarteko loteria**
Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotakoa da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarterako izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBn egin dezakete, Ganbo kalean.

**Eguberrietako loteria**
Lasartearra elkarteak, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erostekoa asmoa duenak elkartean egin dezake astelehenetik ostiralera 18:00aurerra abenduaren 7a arte, hau barne.

**Eguberrietako loteria**
Oztanbide auzo-elkarteak eguberritako loteria salgai jarri duela jakinarazi nahi du: 43.607 zenbakia. Hiru eurotako partizipazioak (loteria: 2,5 euro eta emaria 0,5 euro) Txema tabernan (Andapa kalean, Zumaburun) eta Coviran supermerkatuan (Oztaran emparantzan) erosi ahali zango dituzue. Edozein zalantza argitzeko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu dezakezue.

**Oharrak jartzeko:**
Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

## Eskutitzak

**Hitza hartzen dizugu, Urchuegia andrea**

Lehenik eta behin gure aldetik ere eskerrak eman lasarteoriar guztioi, zortzikoteari, Ttakun Kultur Elkarteari eta udaleko Euskara Sailari egin duzuen-dugun lan eskergagatik.

*Euskara euskaldun guztion ondarea da,eta bere etorkizuna bere komunitatea osatzen dugun pertsona eta instituzio guztion eguneroko lanaren araberakoa izango da.*

Benetan horrela pentsatzen duzu Urchueguia andrea? Zuk idatzi dituzu lerro hauek? Ez dizugu sinesten.Ez gu hirurok bakarrik, lasarteoriar gehiengoak ere ez. Herri honetako alkate daramatzazun urte guzti hauetan ez zara oraindik ez batzar edo plenotan, ez eta barne komisioetan ere egun on edo arratsalde on bat bera ere diosala bezala erabiltzeko gai izan. Zenbat aldiz ekitaldi baten hasieran euskaraz irakurri duzu testu bat. Euskararekiko zure eta zure zinegotzi taldearen eta kolaboratzaile batzuen jarrera ezkorra da, hotza, tristea. Euskara planak onartzen dira, ez dira garatzen,traba besterik ez. Lanean serio asteko garaia da. Argazkia atera eta itxura jatorra zabaltzearekin ez dugu ezer egiten; euskara ikasi eta erabili egin behar da.

Euskal abesti baten letrak honela dio( maratoian osatu zuten esaldia talde desberdinek Teresategira igoerak eginaz) *Maita nazazu gutxio eta goza nazazu gehiago.*

*Udaletik esfortzu handia egiten ari gara gure udalerriaren esparru guztietan euskararen erabilera eta garapena posible egiteko, baina bakoitzaren konpromisorik gabe arrakasta gutxituko litzateke.* Hitz potoloak zuk adierazteko, edo norbaitek zure izenean idazteko.

Euskarak bitarteko ekonomiko eta materialak behar ditu, egia, baina ez hori bakarrik.Sinesgarritasuna,konplizitatea, gestoak...ere behar ditu. Ze konpromezu hartzeko prest zaude?

Guk erronka txiki bat botako dizugu.

1. Kirolak,Gazteria,Kultura eta Euskara sailek lan hizkuntza euskara izango dute.(batzordeetako arduradunak eta teknikariek euskaraz badakite)

2. Udalak 18 urtetik beherako antolatzen dituen ekintzak euskara hutsezkoak izango dira.

3. Langileei ezartzen zaien lan perfilak beteko dira.

4. 2001an onartutako ordenantzak betetzea.

Proposamen hauek 2007ko abenduan egin genituen.

Aste honetan idatzi dizuten artikulu honek, lau urte barru sinesgarritasuna izan dezan, 2012ko larunbat batean goizeko zortziretan Okendo plazako oholtza gainean *euskara euskaldun guztion ondarea dela aldarrikatzeko* prest egongo gara.

**Txanpi Baztarrika, Ixiar Iartza eta Joxe Goikoetxea**

# Dardo Txapelketa Kooperatiboa ospatu zen Also Tabernan larunbatean

Jalguneko gazteek asko disfrutatu zuten larunbatean jokatu zuten dardo txapelketan, guztira 30 jokalari elkartu ziren tabernan batez ere ondo pasatzeko asmoarekin

TXINTXARRI

**Larunbatean Dardo Txapelketa Kooperatiboa ospatu zen Also tabernan. Aurtengoa hirugarrena da dagoeneko, beraz, gustora dabiltzanaren seinale. Bertan elkartu ziren 30 jokalariak elkarrekin arratsaldea pasatzeko asmoarekin.**

Jalgune Elkarteak eta Also Tabernak antolatzen dute Dardos Easoren laguntzarekin dardo txapelketa hau. Parte hartzaileak Jalguneko gazteak eta elkartekoak ez diren beste lasarteoriatarrak izan dira, guztira 30 jokalari. Bikoteka jokatu zuten, bi taldeak nahastuta, hau da, Jalgunekoa ez den gazte bat Jalgunekoa den beste batekin. Txapelketaren helburua Jalguneko gazteek Lasarte-Oriako gainontzeko gazteak ezagutzea, harremanetan egotea eta aukera aprobetxatuz denok batera arratsalde polita eta desberdin bat pasatzea. Ondo pasa zutela argi dago, beraz helburua bete zuten dardozaleek.

## Oztopo txikiak gaindituz

Jalgune Elkarteko kideak ez direnak era berezian jokatu zuten txapelketa, dardoak ez zituzten betiko moduan bota, oztopo txiki batzuk jarri zitzaizkien Jalgunekoak ez zirenei. Urritasuna duten gazteengana gehiago hurbiltzeko asmoarekin dardoa jaurtitze hutsak duen zailtasunari beste batzuk gehitu zitzaizkien, adibidez, begi bat estalita edo hanka bakar baten gainean jarri behar izan zuten. Txapelketan Europako dardo txapelketako irabazle izandako bat ere izan zen, Joseba. Dardoak era askotara bota zituen oriotarrak, begiak estalita, belaunekoz, diana zapi batekin tapatuta zegoela eta uztail bati bueltak ematen zizkion bitartean ere.

## Irabazleak

Hirugarren postua Carlos Blanco eta Idoia Berakoetxeak eskuratu zuten, bigarrena Xabi Imaz eta Joserra Gonzalezek eta irabazleak Julen eta Edorta Hornillos izan ziren.

## Sari mordoa

Bukatutakoan parte hartzaile guztiei sariak banatu zitzaizkien, trofeo bana jaso eta gainera kamisetak, bixera eta bestelako oraoigarriak eraman zituzten etxera jokalariek. Irabazleei merituirik kendu gabe esan behar da gainontzeko jokalariek ere merezi zituztela.

Jalguneko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu duten guztiei, baita laguntzaile lanetan aritu direnei eta nola ez Also Tabernari.



Lagunartean pasa zuten arratsaldea gazteek.

## Arratsalde pasa dardotan

Larunbateko arratsaldea pasatzeko modu bikaina aurkitu dute Jalguneko Elkartekoek lagunartean dardoetan ibiliz, ez dakitenek gutxinaka ikasteko aukera izango dute eta dagoeneko trebeak direnak piska bat praktikatzeko larunbatean. •




IKERLANAK IDAZTEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA / 2008

**Euskal Herriko eta, bereziki, Beterri-Aiztondo eskualdeko historia, gizarte, kultura eta hizkuntzan ikerkizun eta ezagukizun diren gaiak landu eta hausnartzeko eta horiek idatzizko lanen bidez aditzera emateko helburua duten ikerketak diruz laguntzeko dei egin du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, jarraian datozenak direlarik deialdiaren xehetasunak batzuk:**

LEHENA.- Deialdiaren helburua

Ikertuko diren gaien aukera bi ataletan banatzen da:

1. Norberak hauta eta epaimahaiari aurkez diezaion ikerkizuna, beti ere goian aipaturiko alorretakoa izanik zabalkunde eta irakurtzaletasun irizpideei erantzungo diena.
2. Ondoko gai hauetarikoa:
   - **Fraisoro: utzitako haurren trajedia.**
   - **Ezkondu aurreko harremanak. Bekatuaren grina?**
   - **Zeferino Ansa: alkate moderno baten itzala.**
   - **Amasa-Villabona: izena duenak izana?**

Saiakera lan horien luzera, 2.100 karaktere inguruko orrika kontaturik, gutxienez 100 orrikoa izango da.

BIGARRENA.- Saiakera lanen ezaugarriak

Saiakera lanak euskaraz landu eta idatzirikoak izango dira. Horrenbestez, ezin izango da itzulpenik aurkeztu eta epaimahaiak gutxieneko idazkera mailakotzat irizten ez dituen lanak atzera botako ditu.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzak

Epaimahaiak bi dirulaguntza onartuko ditu, biak, gehienez ere, 2.500 eurokoak, baina dirulaguntza bi horien azken kopurua ez du erabakiko ikerketa lana eskuratu eta aztertu bitartean. Beraz, dirulaguntzak bi alditan ordainduko dira: Nolanahi ere, epaimahaiak 5.000 € kopuruko dirulaguntza bakar bat eman ahal izango du, aipatu biak bat eginda.

BOSTGARRENA.- Eskaerak aurkeztea

Eskaerak aurkezteko epea **2008ko azaroaren 28an** amaituko da, eta honako helbidera eraman behar dira edota bertara posta bidez bidali:

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
Ikerlan deialdia
Bulandegi bidea, 23-behea. Karidade-enea
20.150 ZIZURKIL

ZAZPIGARRENA.- Saiakera lana aurkezteko epea

Dirulaguntza jasotzen duen ikerlariak **2009ko ekainaren 30a** baino lehen eskuratu beharko dio lana epaimahaiari, hala paperean inprimaturik nola eustarri informatikoan ere.

Eskura itzazu deialdia arautzen duten oinarrien eskuorria 943 696 450 edo 943 300 733 zenbakietara deituta edo mezu bidez beterri@aiurri.com

Antolatzaile

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

M.LARRAMENDI

Beterri-Aiztondo Gerora Bidean

Babesle

EUSKO JAURLARITZA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia Kultura eta Euskara